

HUHEZIK protokolo bat sortu du ikasleen euskara maila hobetzeko

2007/05/30

Ikusita zenbait ikaslek ez dutela euskara maila nahikorik, **HUHEZIK** protokolo bat onartu du, ikasle horien **hizkuntza maila hobetzeko**. Protokoloa **datorren ikasturtean** abiatuko da, baina maiatzean eta ekainean proba egingo zaie horrela eskatu duten ikasleei.

Horren haritik, Hizkuntzen Departamentuak arduradun bat izendatuko du probak diseinatu, pasatu, plangintza egin eta egoera horretan dauden ikasleen jarraipena egiteko.



Bi ikasle mota

Euskara maila dela-eta, bi ikasle mota bereiziko dira:

- **Galdera egiten duten ikasle potentzialak.** Maiatzean eta ekainean proba bat egingo zaie, euskara maila neurtzeko, eta probekin batera, autobiografia linguistikoa eskatuko zaie. Emaitzak aztertu ondoren, aholkua eman eta jarraipena egingo zaie.
- **Matrikula egin ondoren antzemandako kasuak.** Euskarazko irakasleak kasua detektatu ahala, arduradunari jakinaraziko dio, protokoloa abia dezan.
 - Ikasleari elkarrizketa egingo zaio aholkua emateko, eta, hala balegokio, plangintza egiteko.
 - Arduraduna hiru bider elkartuko da ikaslearekin, jarraipena egiteko.
 - Arduraduna urtean hiru aldiz elkartuko da euskarako irakaslearekin.

Konpromisoa

Jakin ondoren zein euskara maila duten, konpromiso bat eskatuko zaio ikasleari, eta horren probagarri, hitzarmena sinatuko du. Hitzarmen horretan zehaztuko da plangintza; alegia, zein epetan zein helburu bete behar duen. Arduradunak plangintza horren jarraipena egingo du, eta aldian-aldian emaitzen berri emango die irakasleei.

Jomugak

Abiapuntu gisa, maila jakin bat eskatuko zaie ikasleei, ikasketen arabera:

- **Irakasle ikasketak.** Hizkuntzen Portfolio Europarrean C1 mailarako ezartzen direnak. EGAREN parekoa.
- **Ikus-entzunezko Komunikazioa.** Hizkuntzen Portfolio Europarrean C2 mailarako ezartzen direnak. 4. hizkuntza eskakizunaren parekoa.